



Esp.kodea: 2007HORD0001

Gaia: EGUZKI PLAKAK  
Hasiera eguna: 2007-06-14

## ARRASATEKO UDALERRIAN EGUZKI ENERGIA KAPTATZEKO SISTEMAK JARTZEKO ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

## ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACIÓN DE SISTEMAS DE CAPTACIÓN DE ENERGÍA SOLAR EN EL MUNICIPIO DE ARRASATE

### ZIOAK AZALTZEA.

Azken boladan, legeriak berak hala eskatzen duelako nahiz hazkunde eredu iraunkorrago baten ondoriozko jarduerengatik, geroago eta gehiago jartzen dira udalerrian eguzki energia kaptatzeko sistemak. Hori oso positiboa da, baina instalazioen gai teknikoei buruzko lege araudi bat badago ere, ez dugu hirigintza erregulaziorik kaptazio sistema horiek jartzeari buruz. Halako instalazioak jartzea indartu behar badugu ere, begien bistako energia arrazoiengatik, egia da ere ez dela joan behar hiri eta landa paisaien kaltetan. Horregatik, Ordenantza honen bidez erregulatu nahi dugu, hirigintza ikuspegitik, eguzki energia kaptatzeko sistema horiek jartzea, eta, batetik, ezarri nahi ditugu instalazio bakoitzaren ezaugarrien araberrako udal lizentzia lortzeko jarraitu beharreko prozedurak eta, bestetik, elkartu nahi ditugu instalazioak jartzea eta paisaiari egindako eragina zaintzea edo gutxitzea.

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS.

De un tiempo a esta parte, tanto por exigencias de la legislación como por actuaciones consecuentes con un modelo de crecimiento más sostenible, se está incrementando la instalación de sistemas de captación de energía solar en el Municipio. Ello resulta del todo positivo, pero aún cuando existe cierta normativa jurídica sobre cuestiones técnicas de las instalaciones, carecemos de la regulación urbanística sobre la colocación de estos sistemas de captación. Si bien hay que potenciar la colocación de dichas instalaciones por razones energéticas obvias, no es menos cierto que ello no puede ir en perjuicio de los paisajes urbano y rural. Por ello, con esta Ordenanza se pretende regular desde el punto de vista urbanístico la colocación de los referidos sistemas de captación de energía solar, estableciendo, por un lado, los procedimientos que se seguirán para la obtención de la licencia municipal de conformidad a las características de cada instalación, y conjugando, por el otro, la colocación de las instalaciones con la preservación o minimización del impacto paisajístico.

## LEHEN KAPITULUA. OROKORTASUNAK CAPITULO 1. GENERALIDADES

### 1. Art. XEDEA.

Ordenantza honen xedea da erregulatzea, hirigintza ikuspegitik, eguzki energia kaptatzeko sistemak jartzea, bai fotoboltaikoak bai

### Art. 1. OBJETO.

Es objeto de la presente Ordenanza regular, desde el punto de vista urbanístico, la implantación de sistemas de captación de



**Esp.kodea:** 2007HORD0001

**Gaia:** EGUZKI PLAKAK

**Hasiera eguna:** 2007-06-14

termikoak, Arrasateko udalerrian. Hori guztia aplikatzekoa den arloko legeriaren kalterik gabe.

energía solar, bien sean fotovoltaicas bien sean térmicas, en el término municipal de Arrasate. Todo ello, sin perjuicio de la legislación sectorial que sea de aplicación.

## 2. Art. DEFINIZIOAK.

Ordenantza honen ondorioetarako, hona hemen definizio batzuk:

**Eguzki energia kaptatzeko sistema:** Eguzki erradiatziotik datorren energia kaptatzeko balio duen edozein sistema.

**Eguzki plaka fotoboltaikoa:** Energia elektrikoa sortu dezakeen elementua, eguzki erradiatziotik datorren energia kaptatuz.

**Eguzki atzitzaille termikoa:** Eguzki energia kaptatzeko elementua da, horren helburua da berotan kaptatutako energia zuzenean transformatzea, klimatizazioan, ur bero sanitarioan erabiltzeko, igerilekuak berotzeko edo industrian baliatzeko.

**Jarduera kaltegabekoa:** Halakotzat hartuko da eguzki energia kaptatzeko sistemak duenean jarritako potentzia 5 kW-tik behera eguzki instalazio fotoboltaikoen kasuan eta 70 kW-tik behera eguzki instalazio termikoen kasuan.

**Jarduera salbuetsia:** Halakotzat hartuko da eguzki energia kaptatzeko sistemak duenean jarritako potentzia 5 kW-tik gora eguzki instalazio fotoboltaikoen kasuan eta 70 kW-koa edo hortik gorakoa eguzki instalazio termikoen kasuan, eta 100 kW-tik beherakoa kasu bietan.

**Jarduera sailkatua:** Halakotzat hartuko da eguzki energia kaptatzeko sistemak duenean jarritako potentzia 100 kW-tik gora.

## Art. 2. DEFINICIONES.

A efectos de la presente Ordenanza, se entiende por:

**Sistema de captación de energía solar:** cualquier sistema que sirva para la captación de energía procedente de la radiación solar.

**Placa solar fotovoltaica:** aquel elemento susceptible de producir energía eléctrica mediante la captación de energía procedente de la radiación solar.

**Colector solar térmico:** aquel elemento de captación de energía solar cuyo objeto es transformar directamente la energía captada en calor para su utilización en climatización, agua caliente sanitaria (ACS), calentamiento de piscinas o aprovechamientos industriales.

**Actividad inocua:** será considerada como tal aquel sistema de captación de energía solar cuya potencia instalada sea menor de 5 kW en caso instalaciones solares fotovoltaicas, y menor de 70 kW en caso de instalaciones solares térmicas.

**Actividad exenta:** será considerada como tal aquel sistema de captación de energía solar cuya potencia instalada sea mayor de 5 kW en caso de instalaciones solares fotovoltaicas, e igual o mayor de 70 kW en caso de instalaciones solares térmicas, y menor de 100 kW en ambos casos.

**Actividad clasificada:** será considerada como tal aquel sistema de captación de energía solar cuya potencia instalada sea mayor de 100 kW.



Esp.kodea: 2007HORD0001

Gaia: EGUZKI PLAKAK  
Hasiera eguna: 2007-06-14

**Hiri lurra:** Arrasateko Hiri Antolamenduaren Egitamu Orokorrean hala sailkatutako lurra.

**Lurzoru Hiritargaria:** Arrasateko Hiri Antolamenduaren Egitamu Orokorrean hala sailkatutako lurra.

**Lurzoru hiritarrezina:** Arrasateko Hiri Antolamenduko Egitamu Orokorrean hala sailkatutako lurra.

**Suelo Urbano:** suelo clasificado como tal en el Plan General de Ordenación Urbana de Arrasate.

**Suelo Urbanizable:** suelo clasificado como tal en el Plan General de Ordenación Urbana de Arrasate.

**Suelo No Urbanizable:** suelo clasificado como tal en el Plan General de Ordenación Urbana de Arrasate.

### 3. Art. INSTALAZIOEN SAILKAPENA.

1.- **Instalazio motaren arabera:** Fotoboltaikoak edo termikoak izan daitezke.

2.- **Instalazioaren kokalekuaren arabera:** Jari daitezke lursailean, lehendik dauden hormetan edo fabrika obretan, edo eraikinetan.

3.- **Jarritako potentziaren arabera:** Izan daitezke kaltegabekoak, salbuetsiak edo sailkatuak.

4.- **Instalazioaren kokalekuaren arabera:** Hiri lurrian edo luzoruko hiritarrezinean egon daitezke.

### Art. 3. CLASIFICACIÓN DE LAS INSTALACIONES.

1.- **Según el tipo de instalación:** pueden ser fotovoltaicas o térmicas.

2.- **Según la ubicación de la instalación:** pueden ser colocadas sobre el terreno, sobre muros u obras de fábrica existentes, o sobre edificios.

3.- **Según la potencia instalada:** pueden ser inócuas, exentas o clasificadas.

4.- **Según el emplazamiento de la instalación:** pueden ser emplazadas en suelo urbano o en suelo no urbanizable.

## 2. KAPITULUA. EZARPENAREN ERREGULAZIOA

### 4. Art. LIZENTZIA BEHAR DU.

Eguzki energia kaptatzeko edozein sistema jarri edo ezartzeak, berdin dio zer-nolakoa den eta zer potentzia duen, beharko du jardueraren obra lizentzia lortzea nahitaez.

Jakina, eguzki energia kaptatzeko sistemak jartzeari osagarria den obra zibil guztiek aplikatzeko den araudi orokorra bete beharko

## CAPITULO 2. REGULACIÓN DE LA IMPLANTACIÓN

### Art. 4. SUJECIÓN A LICENCIA.

La instalación o implantación de cualquier sistema de captación de energía solar, sea del tipo que sea y tenga la potencia que tenga, estará sujeta a la previa obtención de la **licencia municipal de actividad y obra**.

Obviamente, toda la obra civil complementaria a la instalación de sistemas de captación de energía solar deberá cumplir con la



Esp.kodea: 2007HORD0001

Gaia: EGUZKI PLAKAK

Hasiera eguna: 2007-06-14

dute, arloka nahiz udaleko hirigintza araudiaren eremuan.

normativa general de aplicación, tanto a nivel sectorial como a nivel de la normativa urbanística municipal.

### 5. Art. JARDUERA ETA OBRA LIZENTZIAK ESKATZEKO AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

### Art. 5. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR PARA LA SOLICITUD DE LAS LICENCIAS DE ACTIVIDAD Y OBRA.

Lizentzia lortzeko aurkeztu beharreko agiria ezberdina izango da, sistema hauetakoren baten arabera bada, jarduera kaltegabea, jarduera salbuetsia edo jarduera sailkatua:

La documentación a presentar para la obtención de licencia será diferente en función de que el sistema sea considerado actividad inocua, actividad exenta o actividad clasificada:

- **Jarduera kaltegabea:** aurkeztu beharko dira kokaleku zehatzaren planoak (behar bezala kotaturik eta/edo eskalan), instalazioaren memoria deskriptibo laburra, instalatzaile baimendun batek sinaturik, instalatu beharreko potentziaren kalkulua eta instalazioetako planoak edo eskemak.

- **Actividad inocua:** habrán de presentarse presupuesto, planos de ubicación concreta (debidamente acotado y/o escalado), una breve memoria descriptiva de la instalación suscrita por instalador autorizado, cálculo de la potencia a instalar y planos o esquemas de las instalaciones.

Instalazioak, ezaugarriengatik, hala behar duenean, hauek ere aurkeztu beharko dira:

Cuando la instalación, por sus características, así lo requiera deberá presentarse además:

- laneko arriskuen prebentzio kontuetan legeria bete izana egiaztatzen duen agiria, Segurtasun eta Osasun Azterketa edo Oinarrizko Azterketa.

- Documentación que acredite el cumplimiento de la legislación en materia de prevención de riesgos laborales, Estudio o Estudio Básico de Seguridad y Salud.

- Teknikari gaituak sinatutako ziurtagiria, egon behar duen egituraren sostengu ahalmena egiaztatzen duena, eta erresistentzia eta gainkargak frogatzen dituen kalkulua, indarrean dagoen araudiaren arabera.

- Certificado suscrito por técnico competente acreditando la capacidad portante de la estructura sobre la que se vaya a asentar, con el cálculo justificativo de la resistencia y las sobrecargas, conforme a la normativa vigente.

- **Jarduera salbuetsia:** aurkeztu beharko da proiektu teknikoa osatua, teknikari eskudunak sinaturik eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsirik.

- **Actividad exenta:** habrá de presentarse un proyecto técnico completo firmado por técnico competente y visado por el Colegio Oficial correspondiente.

- **Jarduera sailkatua:** aurkeztu beharko da proiektu teknikoa osatua, teknikari eskudunak

- **Actividad clasificada:** habrá de presentarse un proyecto técnico completo



**Esp.kodea:** 2007HORD0001

**Gaia:** EGUZKI PLAKAK

**Hasiera eguna:** 2007-06-14

sinaturik eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-  
onetsirik.

firmado por técnico competente y visado por el  
Colegio Oficial correspondiente.

100 kW-tik gorako instalazio  
fotovoltaikoa denean, beharko du, hortik aparte,  
Inguru Eragineko Banakako Ebaluazio  
espedientea izapidetu izanaren egiaztagiria.

En el supuesto de que se trate de  
instalación fotovoltaica que supere los 100 kW  
precisará, además, de la documentación  
acreditativa de haber sido tramitado el expediente  
de Evaluación Individualizada de Impacto  
Ambiental.

Bestela bada eta hormetan eta fabrika  
obretan edo lurretan ezartzen direnean, lurzoru  
hiritarrezinean, horrekin batera erantsiko dira  
inguru eragineko azterketa bat eta instalazioak  
sortzen dituen eraginak murrizteko neurri  
zuzentzaileak, bereziki paisaiakoak. Ondorio  
horietarako, instalaziotzat jotzen da, eguzki plakak  
elkartzeaz gain, perimetro itxitura, sarbideak,  
ebakuatzeko linea elektrikoa, transformazio  
zentroak, kontagailuak eta gainontzeko  
instalazioak eta sistema osagarriak.

En caso contrario y para los supuestos  
de implantación sobre muros y obras de fábrica o  
sobre el terreno, en suelo no urbanizable, se  
anexará un estudio de afecciones ambientales y  
medidas correctoras que minimicen los impactos  
que genera la instalación, especialmente los  
paisajísticos. A estos efectos, se entiende por  
instalación, además de la agrupación de las placas  
solares, el cierre perimetral, los accesos, el tendido  
eléctrico de evacuación, los centros de  
transformación, los contadores y el resto de  
instalaciones y sistemas complementarios.

**Instalazioa bukatutakoan eta  
jarduera hasteko lizentzia lortzeko**, hiru  
kasuetan (jarduera kaltegabea, salbuetsia eta  
sailkatua) ekarri beharko da, espediente bakoitzari  
atxikitako agiri orokorrez gain, instalatzaile  
baimendunak sinatutako instalazioaren ziurtagiria.

**Una vez concluida la instalación y  
para la obtención de la licencia de inicio de  
actividad**, en los tres casos (actividad inocua,  
exenta y clasificada) deberá aportarse, además de  
la documentación general asociada a cada uno de  
los expedientes, el certificado de la instalación  
suscrito por el instalador autorizado.

**Halaber, instalazioaren helburua  
bada aprobetxamendu ekonomiko bat**, energia  
elektrikoaren enpresa banatzailearen eta Industria  
Lurralde Ordezkaritzaren dagozkion baimenak  
eta onarpenak aurkeztu beharko dira.

**Asimismo, caso de que el objetivo de  
la instalación sea un aprovechamiento  
económico**, deberán presentarse las  
autorizaciones y aprobaciones correspondientes  
por parte de la empresa distribuidora de energía  
eléctrica y la Delegación Territorial de Industria.

## 1. ATALA. EZARTZEA HIRI LURREAN

## APARTADO 1. IMPLANTACIÓN EN SUELO URBANO

### 6. Art. ERAIKUNTZAN EZARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK, HIRI LURREAN.

### Art. 6. CONDICIONES GENERALES DE IMPLANTACIÓN SOBRE EDIFICACIÓN, EN SUELO URBANO.

Hiri lurrian, onartuko da kaptazio  
sistema fotovoltaikoak eta termikoak jartzea,

En suelo urbano, se permitirá la  
instalación de sistemas de captación fotovoltaicas



**Esp.kodea:** 2007HORD0001

**Gaia:** EGUZKI PLAKAK  
**Hasiera eguna:** 2007-06-14

eraikuntzaren kontra edo gainean, bai teilatuan bai fatxadan.

Aurrekoa gorabehera, hiri antolamenduko egitamu orokorreko 66.- ALDE ZAHARRA eremuan, kontuan izanik horren monumentu izaera, berariaz dago debekaturik instalazio horiek jartzea, Alde Zaharreko plan berezian arautu arte.

**Babesen bat (katalogaturik edo inbentarioan) daukaten gainontzeko eraikinetan,** Ordenantza hau aplikatzeaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Departamentuak xedatzen duena beteko da berariaz.

Eguzkia kaptatzeko sistema fotoboltaikoen eta termikoen instalazioak armonia izan behar du erakinarekin, bai eta ingurunearekin ere. Printzipioz, jarduerak izango dira bateratuak eta aldi baterakoak, auzokoen arte bakoitzean. Baldin eta eraikuntza badago eraikin bloke edo multzo batean, alde aurretik instalazioaren eta eraikinean duen kokalekuaren azterketa global bat egin behar da.

Debekaturik dago berariaz fatxadatik edozein tutu eta eroanbide bistan trazatzea, proiektuan erantsi ezean, era zehatzean, eraikinaren estetikan ondo integratu dela bermatzen duen eraikuntza soluziobide bat.

Transformadoreak eta metagailuak, hala badagokio, eta beste instalazio osagarri batzuk nahitaez jarri behar dira eraikuntzaren barruan.

Horren ostean, bereiziko dira hainbat kasu, sistemak jartzeari (teilatuan edo fatxadan) eta eraikinaren ezaugarriei dagokienez, eta gero, berehala, horiei dagozkien instalazioaren baldintza espezifikoak erregulatuko dira. Hain zuzen ere:

y térmicas apoyadas sobre la edificación, tanto en cubierta como en fachada.

No obstante lo anterior, en el ámbito **66.- ALDE ZAHARRA** del Plan General de Ordenación Urbana, habida cuenta de su carácter monumental, queda expresamente prohibida la instalación de dichos sistemas hasta que sea regulado en el PER del Casco Histórico.

En el resto de edificios que cuenten con algún tipo de protección (catalogados o inventariados), además de la aplicación de la presente Ordenanza, se estará a lo que disponga de forma expresa el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La instalación de sistemas de captación solar fotovoltaicas y térmicas deberá presentar armonía con el propio edificio así como con el entorno. En principio, las actuaciones habrán de ser conjuntas y simultáneas en cada portal de vecinos. Si la edificación está comprendida dentro de un bloque o conjunto edificatorio, previamente deberá realizarse un análisis global de la instalación y su disposición en el edificio.

Queda prohibido de forma expresa el trazado visible por fachadas de cualquier tubería y otras canalizaciones, salvo que se acompañe en el proyecto, de forma detallada, una solución constructiva que garantice su adecuada integración en la estética del edificio.

Los transformadores y acumuladores, en su caso, y otras instalaciones complementarias deberán ubicarse necesariamente dentro de la edificación.

A continuación se distinguirán distintos supuestos en cuanto a la colocación de los sistemas (en cubierta o en fachada) y las características del edificio, para seguidamente abordar la regulación de las condiciones específicas de instalación que les correspondan. En concreto:



Esp.kodea: 2007HORD0001

Gaia: EGUZKI PLAKAK  
Hasiera eguna: 2007-06-14

\* Teilatuan:

- Teilatu planoan
- Teilatu inklinatuan
  - Bizitegi eraikina
  - Jarduera ekonomikoen eta ekipamenduen eraikina

\* Fatxadan:

- Bizitegi eraikina
- Jarduera ekonomikoen eta ekipamenduen eraikina

\* En cubierta:

- Cubierta plana
- Cubierta inclinada
  - Edificio residencial
  - Edificio de actividades económicas y de equipamiento

\* En fachada:

- Edificio residencial
- Edificio de actividades económicas y de equipamiento

## 7. Art. EZARTZEA ERAIKUNTZAKO ESTALKIAN, HIRI LURREAN.

### 1. Teilatu planoan:

Eguzki energia kaptatzeko sistemak ezarri gero teilatu planoetan, muga hauek izango dira:

- Ezingo du izan 2 m-tik gorako garaiera, teilatuaren kotari buruz.
- Gutxienez 0,50 m-ko erretiroa izango du, fatxadaren lerrokaduraren punturik garaienera buruz.
- Kokatu beharko da fatxadaren lerrokaduraren punturik garaieneratik 35°-ra trazatutako planoek egiten duten ingurakariaren barruan.

### 2. Teilatu inklinatuan:

2.a) Bizitegi eraikinetan, teilatuko falfoietan jarri ahal izango dira horien inklinazio beraz, eta gehienez ere 20 cm-ko garaiera batez,

## Art. 7. IMPLANTACIÓN SOBRE CUBIERTA DE LA EDIFICACIÓN, EN SUELO URBANO.

### 1. Cubierta plana:

La implantación de sistemas de captación de energía solar en cubiertas planas se sujetará a las siguientes limitaciones:

- No podrá tener una altura superior a 2,00 m respecto de la cota de la cubierta.
- Habrá de tener un retiro mínimo de 0,50 m respecto del punto más alto de la alineación de la fachada.
- Deberá situarse dentro de la envolvente formada por planos trazados a 35° desde los puntos más altos de la alineación de la fachada.

### 2. Cubierta inclinada:

2.a) En edificios residenciales, podrán situarse en los faldones de cubierta con la misma inclinación de éstos, sobresaliendo una altura



Esp.kodea: 2007HORD0001

Gaia: EGUZKI PLAKAK  
Hasiera eguna: 2007-06-14

teilatuko faldoiaren planoari buruz.

Edozelan ere, “landa eraikuntza”ren tipologiaren kasuan, onartuko da eguzkia kaptatzeko sistema termikoak ezartzea bakarrik, eta berariaz debekatzen da eguzkia kaptatzeko sistema fotoboltaikoak jartzea. Hura jartzeko erregulazioa izango da Ordenantza honetako 12. artikuluan “baserrietarako” ezarritako berbera.

2.b) Jarduera ekonomikoen eta ekipamenduen eraikinetan, ahal bada bizitegi eraikinetakoen era berebean jarri behar dira. Edozelan ere, energia optimizazioko eta energia eraginkortasuneko irizpideek aholkatuz gero beste kokalekuren bat, soluziobide bereziak onartu ahal izango dira, horiek behar bezala frogatu eta gero.

## 8. Art. EZARTZEA ERAIKUNTZAKO FATXADAN, HIRI LURREAN.

1. Bizitegi eraikinetan, bakarrik onartuko da fatxadan jartzea bizitegi eraikin ireki eta zaharren tipologietan, eta hegada irekietako babes elementuetan bakarrik, halako elementuentzat Arrasateko Hiri Antolamenduko Egitamu Orokorraren eraikuntza Ordenantzetan xedatutakoaren arabera.

Jarduera izango da bateratua eta aldi berekoa atarte osoarentzat. Kasu honetarako, gainera, bateratua eta aldi berekoa izango da, eraikuntza bloke edo multzo batean sartuta egonez gero eraikina.

2. Jarduera ekonomikoen eraikinetan eta ekipamenduen eraikinetan, eguzkia kaptatzeko sistemak jarri ahal izango dira fatxaden inklinazio berberaz eta irten gabe haren plano bertikaletik, eta harmonizatuko dute baoen konposizioarekin eta eraikineko gainontzekoekin.

máxima de 20 cm respecto del plano del faldón de cubierta.

Ello no obstante, para el supuesto de la tipología de “edificación rural” solo se permitirá la implantación de sistemas de captación solar térmicas, prohibiéndose expresamente la instalación de sistemas de captación fotovoltaicas. La regulación de su colocación será la misma que la establecida para los “caseríos” en el artículo 12 de la presente Ordenanza.

2.b) En edificios de actividades económicas y de equipamiento deberán colocarse preferentemente de la misma forma que en los residenciales. No obstante, si criterios de optimización y eficiencia energética aconsejaran otro tipo de disposición, cabrá la admisión de soluciones singulares previa justificación adecuada de las mismas.

## Art. 8. IMPLANTACIÓN EN FACHADA DE LA EDIFICACIÓN, EN SUELO URBANO.

1. En edificios residenciales únicamente se permitirá la colocación en fachada en las tipologías de residencial abierta y antigua, y solo en elementos de protección de los vuelos abiertos, de conformidad con lo dispuesto en las Ordenanzas edificatorias del Plan General de Ordenación Urbana de Arrasate para dichos elementos.

La actuación habrá de ser conjunta y simultánea para todo el portal. Para este supuesto, además, será también conjunta y simultánea en caso de que el edificio se encuentre integrado en un bloque o conjunto edificatorio.

2. En edificios de actividades económicas y equipamiento se podrán colocar los sistemas de captación solar con la misma inclinación de las fachadas y sin salirse de su plano vertical, armonizando con la composición de los huecos y con el resto del edificio.





**Esp.kodea:** 2007HORD0001

**Gaia:** EGUZKI PLAKAK  
**Hasiera eguna:** 2007-06-14

Aurrekoa gorabehera, eta eraginkortasunik handiena bilatzeko, sistema eratzen duten banakako elementuek izan ahalko dute inklinazio txikia, non-eta oinplano proiektzioak ez duen gaitutuko kasu batean ere 60 cm, fatxadaren lerroari buruz.

### **9. Art. EZARTZEA HORMETAN ETA FABRIKA OBRETAN, HIRI LURREAN.**

Hiri lurrean, eguzkia kaptatzeko sistema fotoboltaikoak eta termikoak jartzea onartuko da, hormetan eta fabrika obretan kokaturik, inklinazio txiki batekin, egiturazko elementuen kanpoaldeko aurpegiari buruz.

Edozelan ere, sistema eratzen duten elementuen oinplano proiektzioak ez du gaitutuko, ezelan ere, metro bateko distantzia, egiturazko elementuaren kanpo aurpegi hori zehazten duen lerroari buruz.

### **10. Art. EZARTZEA LURSAILEAN, LURZORU HIRI LURREAN.**

Hiri lurrean, onartuko da kaptazio sistema fotoboltaikoak eta termikoak jartzea, partzela pribatu eraikinezinean.

Instalazioak ingurunearekiko harmonia gorde beharko du, eta inguruetan jarrita dauden eraikuntzekin azterketa bateratua egingo da.

Transformadoreak eta metagailuak, hala badagokie, eta beste instalazio osagarri batzuk nahitaez kokatu behar dira plaken azpian, edota eraikuntza barruan, baina inoiz ez partzelan dauden beste elementu independente batzuetan.

Bizitegiak partzeletan eta ekipamenduetako partzeletan, instalazioak ezingo

Independientemente de lo anterior, y para buscar la máxima eficiencia, los elementos individuales constitutivos del sistema podrán tener una pequeña inclinación, en la que su proyección en planta no supere en ningún caso los 60 cm respecto de la línea de fachada.

### **Art. 9. IMPLANTACIÓN SOBRE MUROS Y OBRAS DE FÁBRICA, EN SUELO URBANO.**

En suelo urbano, se permitirá la instalación de sistemas de captación solar fotovoltaicas y térmicas apoyadas sobre muros y obras de fábrica, con una pequeña inclinación respecto de la cara externa de los propios elementos estructurales.

En cualquier caso, la proyección en planta de los elementos constitutivos del sistema no superará bajo ningún concepto la distancia de 1,00 m respecto de la línea que define la citada cara externa del elemento estructural.

### **Art. 10. IMPLANTACIÓN SOBRE TERRENO, EN SUELO URBANO.**

En suelo urbano, se permitirá la instalación sobre terreno de sistemas de captación fotovoltaicas y térmicas, en parcela privada no edificable.

La instalación deberá preservar la armonía con el entorno, y se realizará un análisis en conjunto con las edificaciones situadas en las inmediaciones.

Los transformadores y acumuladores, en su caso, y otras instalaciones complementarias deberán ubicarse necesariamente debajo de las propias placas, o bien dentro de la edificación, pero nunca en otros elementos independientes situados en la parcela.

En las parcelas residenciales y en las de equipamiento la instalación no podrá tener una



**Esp.kodea:** 2007HORD0001

**Gaia:** EGUZKI PLAKAK  
**Hasiera eguna:** 2007-06-14

du izan 1,50 m-tik gorako garaiera, eguzki plaken planoaren erdiko puntuan neurtuta.

altura superior a 1,50 m, medida en el punto central del plano de las placas solares.

Jarduera ekonomikoen kasuan instalazioa jarri daitekeenez eraikuntzan bertan, debekaturik dago eguzkia kaptatzeko sistemak jartzea lursailean.

Dado que en el caso de las actividades económicas cabe la posibilidad de colocar la instalación en la propia edificación, queda prohibida la implantación de sistemas de captación solar sobre terreno.

## **2. ATALA. EZARTZEA LURZORU HIRITARREZINEAN**

## **APARTADO 2. IMPLANTACIÓN EN SUELO URBANIZABLE**

### **11. Art. EZARTZEA LURZORU HIRITARGARRIAN**

### **Art. 11. IMPLANTACIÓN EN SUELO URBANIZABLE.**

Ez da onartuko eguzkia kaptatzeko sistema fotoboltaikoak eta termikoak jartzea hiritargarri sailkatutako lurzoruan, hura bihurtzen ez duten bitartean hiri lur. Bihurtu eta gero, hiri lurean ezartzeari buruzko artikulua aplikatuko zaizkio.

No se permitirá la instalación de sistemas de captación solar fotovoltaicas y térmicas en el suelo clasificado como urbanizable, en tanto éste no haya sido transformado en suelo urbano. Una vez producida la transformación, le serán de aplicación los artículos referentes a la implantación en suelo urbano.

## **3. ATALA. EZARTZEA LURZORU HIRITARREZINEAN**

## **APARTADO 3. IMPLANTACIÓN EN SUELO NO URBANIZABLE**

### **12. Art. EZARTZEA ERAIKUNTZAN, LURZORU HIRITARREZINEAN.**

### **Art. 12. IMPLANTACIÓN SOBRE EDIFICACIÓN, EN SUELO NO URBANIZABLE.**

**1.- Baserriak:** “Baserrien Katalogoa”n sartutako baserrietako eraikin nagusietan eguzkia kaptatzeko sistema termikoak bakarrik ezarri ahal izango dira. Berariaz debekatzen da eguzkia kaptatzeko sistema fotoboltaikoak jartzea.

**1.- Caseríos:** en las edificaciones principales de los caseríos incluidos en el “Catálogo de caseríos” solo se permitirá la implantación de sistemas de captación solar térmicas. Se prohíbe expresamente la instalación de sistemas de captación fotovoltaicas.

Eguzki atzitzaille termikoak eraikuntzaren teilatuan baino ez dira jarriko, eta muga hauekin:

Los colectores solares térmicos se colocarán únicamente en cubierta de la edificación, y con las siguientes limitaciones:

- Teilatuko faldoietan jarriko dira, horien inklinazio beraz, eta gehienez ere 20 cm-ko garaiera batez, teilatuko faldoiaren planoari buruz.

- Se situarán en los faldones de cubierta con la misma inclinación de éstos, sobresaliendo una altura máxima de 20 cm respecto del plano del faldón de cubierta.

- Oinplano kokalekuari dagokionez,

- En cuanto a su disposición en planta,



Esp.kodea: 2007HORD0001

Gaia: EGUZKI PLAKAK

Hasiera eguna: 2007-06-14

elkarturik jarriko dira, faldoi bakoitzean elementu errektangular bakar bat eratu dezaten, eta horren albo bat paraleloa gailurrearekiko.

- Ezingo dira izan teilatuko faldoi bakoitzaren azaleraren % 30 baino handiagoak.

**2.- Gainerako bizitegi eraikinak:** “Baserrien Katalogoa”n sartzen ez diren bizitegi eraikinetan, eguzkia kaptatzeko sistemak ezingo dira jarri teilatuan, eta aplikatuko zaie hiri lurrean dauden bizitegi eraikuntzetarako Ordenantza honetan jasota dagoen erregulazioa (7. artikuluan).

**3.- Eranskin salbuetsiak eta baserriko nabeak:** Eraikuntza horietan bai onartuko da eguzkia kaptatzeko sistemak ezartzea, bai fotoboltaikoak bai termikoak.

Plakak teilatuko falfoietan baino ez dira jarriko. Haien inklinazio berbera izango dute, eta gehienez ere 20 cm-ko garaiera batez, teilatuko faldoiaren planoari buruz.

Kasu guztietan, baserrietan nahiz gainerako bizitegi eraikuntzetan y eranskinetan, transformadoreak eta metagailuak, hala badagokie, eta beste instalazio osagarri batzuk kokatu behar dira nahitaez eraikuntzaren barruan.

### **13. Art. EZARTZEA HORMETAN ETA FABRIKA OBRETAN, LURZORU HIRITARREZINEAN.**

Lurzoru hiritarrezinean, eguzkia kaptatzeko sistema fotoboltaikoak eta termikoak jartzea onartuko da, hormetan eta fabrika obretan kokaturik, inklinazio txiki batekin, egiturazko elementuen kanpoaldeko aurpegiari buruz.

Edozelan ere, sistema eratzen duten

se colocarán agrupadas, de manera que constituyan un único elemento rectangular en cada faldón, siendo uno de sus lados paralelo a la cumbre.

- No podrán superar el 30% de la superficie de cada faldón de cubierta.

**2.- Resto de edificios residenciales:** en los edificios residenciales no incluidos en el “Catálogo de caseríos”, los sistemas de captación solar solo podrán ser colocados en cubierta, y les será de aplicación la regulación contenida en la presente Ordenanza para las edificaciones residenciales sitas en suelo urbano (artículo 7).

**3.- Anejos exentos y naves agropecuarias:** en estas edificaciones se permitirá la implantación de sistemas de captación solar tanto fotovoltaicas, como térmicas.

Las placas se colocarán únicamente en los faldones de cubierta. Habrán de tener la misma inclinación de éstos, sobresaliendo una altura máxima de 20 cm respecto del plano del faldón de cubierta.

En todos los supuestos, tanto en caseríos, como en resto de edificaciones residenciales y en anejos, los transformadores y acumuladores, en su caso, y otras instalaciones complementarias deberán ubicarse necesariamente dentro de la edificación.

### **Art. 13. IMPLANTACIÓN SOBRE MUROS Y OBRAS DE FÁBRICA, EN SUELO NO URBANIZABLE.**

En suelo no urbanizable, se permitirá la instalación de sistemas de captación solar fotovoltaicas y térmicas apoyadas sobre muros y obras de fábrica, con una pequeña inclinación respecto de la cara externa de los propios elementos estructurales.

En cualquier caso, la proyección en



Esp.kodea: 2007HORD0001

Gaia: EGUZKI PLAKAK

Hasiera eguna: 2007-06-14

elementuen oinplano proiektzioak ez du gaintuko, ezelan ere, 1,5 metroko distantzia, egiturazko elementuaren kanpo aurpegi hori zehazten duen lerroari buruz.

planta de los elementos constitutivos del sistema no superará bajo ningún concepto la distancia de 1,50 m respecto de la línea que define la citada cara externa del elemento estructural.

#### 14. Art. EZARTZEA LURSAILEAN, LURZORU HIRITARREZINEAN.

#### Art. 14. IMPLANTACIÓN SOBRE TERRENO, EN SUELO NO URBANIZABLE.

Lurzoru hiritarrezinean, oro har onartuko da kaptazio sistema fotoboltaikoak eta termikoak jartzea. Debekaturik dago sistema horiek ezartzea Hiri Antolamenduko Egitamu Orokorrean jasota dauden eremu hauetan:

En suelo no urbanizable, se permitirá con carácter general la instalación sobre terreno de sistemas de captación solar fotovoltaicas y térmicas. Se prohíbe la implantación de dichos sistemas en las siguientes Zonas contenidas en el Plan General de Ordenación Urbana:

Udalatx mendiko paisaia babesteko eremua.

- Zona de protección del paisaje de Udalatx.

- Muru mendiko arkeologia eta paisaia babesteko eremua, telekomunikazioen instalazioak jartzeko herri eta gizarte intereseko deklaraturako eremuak izan ezik.

- Zona de protección arqueológica y protección del paisaje de Muru, salvo los ámbitos declarados de interés público y social para colocación de instalaciones de telecomunicaciones.

- Or ohar basoa babesteko lurzoru hiritarrezina.

- SNU de protección forestal en general.

- Hainbat eremu, horietan landaretzak lehentasunezko eta intereseko habitat eremuak dituenen, kontserbaziorako balio handiko 92/43/CEE Zuzentarauaren arabera, eta Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan sartutako flora babestua duten lekuak (Eusko Jaurlaritzako 167/1996 Dekretua eta hura handitzen duten geroko Aginduak).

- Areas cuya vegetación incluya zonas de hábitats prioritarios y de interés según la Directiva 92/43/CEE de alto valor para la conservación, y enclaves con flora protegida incluida en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas (Decreto 167/1996 del GV y Ordenes posteriores que lo amplían).

Instalazioak ingurunearekiko harmonia gorde beharko du, eta inguruetan jarrita dauden eraikuntzekin azterketa bateratua egingo da.

La instalación deberá preservar la armonía con el entorno, y se realizará un análisis en conjunto con las edificaciones situadas en las inmediaciones.

Transformadoreak eta metagailuak, hala

Los transformadores y acumuladores, en



**Esp.kodea:** 2007HORD0001

**Gaia:** EGUZKI PLAKAK  
**Hasiera eguna:** 2007-06-14

badagokie, eta beste instalazio osagarri batzuk nahitaez kokatu behar dira plaken azpian, edota eraikuntza barruan (salbuetsitako eranskinak), baina inoiz ez partzelan dauden beste elementu independente batzuetan.

Linea elektrikoaren trazatuak edo instalazioaren sarbideek afektazio larriak sortzen dituztenean, Udalak eskatu ahal izango du produkzioaren ebakuazio linea elektrikoa izateko guztiz edo zati batean lurpetik, edo instalaziora erraz iristeko alternatibak aurkezteko, hurrenez hurren.

Instalazioa izango da finkoa, eta ezingo du izan 1,5 m-tik gorako garaiera, eguzki plaken planoaren erdiko puntuan neuriturik. Instalazioa bada eguzki mugimenduaren jarraipen azimutalekoa, garaiera hori gehituko da 2 m-raino, berdin neuriturik.

Eguzkia kaptatzeko elementu bakoitzak gehienez ere izango du 55 m<sup>2</sup>.

Osootasunean instalazioak gehienez ere hartuko du hektarea bat.

La distancia mínima a respetar entre los bordes perimetrales de las distintas instalaciones no será inferior a 500 m medidos en planta.

su caso, y otras instalaciones complementarias deberán ubicarse necesariamente debajo de las propias placas, o bien dentro de la edificación (anejos exentos), pero nunca en otros elementos independientes situados en la parcela.

Cuando el trazado del tendido eléctrico, o de los accesos a la instalación generen afecciones graves, el Ayuntamiento podrá exigir que la línea eléctrica de evacuación de la producción sea total o parcialmente soterrada, o que se presenten alternativas de accesibilidad a la instalación, respectivamente.

Si la instalación es fija, la misma no podrá tener una altura superior a 1,50 m, medida en el punto central del plano de las placas solares. Si la instalación es de seguimiento azimutal del movimiento solar dicha altura se incrementará hasta 2,00 m, medidos de igual manera.

Cada uno de los elementos de captación solar tendrá como máximo 55 m<sup>2</sup>.

La superficie máxima ocupada por la instalación en su globalidad no podrá ser superior a una hectárea.

La distancia mínima a respetar entre los bordes perimetrales de las distintas instalaciones no será inferior a 500 m medidos en planta.

### **3. KAPITULUA. JARDUERA IRAUNGITZEA**

### **CAPITULO 3. EXTINCIÓN DE LA ACTIVIDAD**

#### **15. Art. JARDUERA IRAUNGITZEA.**

#### **Art. 15. EXTINCIÓN DE LA ACTIVIDAD.**

Gaur gaurkoz eguzkia kaptatzeko sistemek gehienez ere 35-40 urte hartzen dute. Horregatik, jardueraren lizentzia iraungiko da berez 40 urtera, ematen den egunetik kontatzen hasita.

Hoy por hoy los sistemas de captación solar tienen una vida útil máxima de 35 -40 años. Por ello, la licencia de actividad caducará automáticamente, a los 40 años a contar de la fecha de su concesión.

Iraungitzen denean, lizentzia ematen duen Erabakian berariaz aipatuko dena, jardueraren titularra eta subsidiarioki instalazioa egon dagoen ondasunaren jabeak nahitaez

Dicha caducidad, que será expresamente mencionada en la Resolución en la que se conceda la licencia, implicará la obligación del titular de la actividad, y subsidiariamente del



**Esp.kodea:** 2007HORD0001

**Gaia:** EGUZKI PLAKAK  
**Hasiera eguna:** 2007-06-14

berrituko du lizentzia, orduan aplikatu beharreko eskakizunak bete beharko direlarik, edota instalazioa desegingo du, eta lursailak zaharberritu edo berriro begetatu.

Desegiteko, Udalean aurkeztu beharko du “desegiteko eta lursailak zaharberritu eta berriro begetatzeko proiektua”, eta hor azalduko du zelan egingo duen hori, behar diren epeak, eta instalazioak dauzkan hondakinen kudeaketa eta elementuen birziklatzea, ahal den neurrian, eta berariaz adieraziko da zein zabortegira edo nora eramango dituzten.

Proiektu hori aurkeztu beharko da gehienez ere lizentzia iraungitzen den egunean, eta Udalak onartu beharko du, eta Udalak baldintzak edo neurri zuzentzaile sartu ahal izango ditu, proiektuan jasota daudenen osagarriak.

Iraungitze epe hori igarotzeari buruz adierazitakoaren kalterik gabe, jardueraren titularra eta subsidiarioki instalazioa egon dagoen ondasunaren jabeak beharturik egongo da instalazioa desegitera, eta lursailak zaharberritzera, ustiapenari uzten badio iraungitze epe hori bukatu baino lehen.

## **16. Art. ARAU-HAUSTEAK ETA SANTZIOAK.**

“Desegiteko Proiektua” epean aurkeztu ezean, lizentzia berritu ez bada, ingurumenaren aurkako arau-hauste larritzat joko da, eta aplikatuko zaio kasu bakoitzean indarrean dagoen ingurumen legerian jasotako santzioa, gehieneko zenbatekoan.

Hortik aparte, jarduera ez desegin izanak, dagokion jarduera lizentzia iraungi eta

propietario del bien sobre el que se encuentre colocada la instalación, o bien de renovar la licencia con cumplimiento de las exigencias que en su momento sean de aplicación, o bien de desmantelar la instalación, y restaurar y revegetar los terrenos.

Para el desmantelamiento, deberá presentar ante el Ayuntamiento “Proyecto de desmantelamiento y de restauración y revegetación de los terrenos”, en el que se exponga el modo en que se realizará, los plazos precisos, y la gestión de los residuos y reciclaje de los elementos que contiene la instalación, en la medida en que sea posible, con indicación expresa del vertedero o lugar al que se trasladarán.

El anterior Proyecto habrá de ser presentado como máximo en la fecha en que se produzca la caducidad de la licencia, y precisará de la aprobación del Ayuntamiento, que podrá introducir condiciones o medidas correctoras complementarias a las contenidas en el mismo.

Sin perjuicio de lo expresado sobre el transcurso de dicho plazo de caducidad, el titular de la actividad, y subsidiariamente el propietario del bien sobre el que se encuentre colocada la instalación, también estará obligado a desmantelar la instalación, y restaurar los terrenos, si cesa en la explotación de la misma con antelación a la expiración del citado plazo de caducidad.

## **Art. 16. INFRACCIONES Y SANCIONES.**

El incumplimiento de la presentación del “Proyecto de desmantelamiento” en plazo, en caso de que no se haya procedido a la renovación de la licencia, será considerado como una infracción grave contra el medio ambiente, y le será de aplicación la sanción prevista en la legislación medio ambiental vigente en cada caso, en la cuantía máxima.

Además de ello, el hecho de no desmantelar la actividad una vez caducada la



**Esp.kodea:** 2007HORD0001

**Gaia:** EGUZKI PLAKAK

**Hasiera eguna:** 2007-06-14

gero, ekarriko du jarduera garatzea lizentziarik gabe, eta hori ere arau-haustea da, aplikaziokoa den arlokako legeriaren arabera (hirigintza eta ingurumen legeria), eta legeria horretan adierazitako santzioak ezarri ahal dira.

licencia de actividad correspondiente, implicará el desarrollo de la actividad sin licencia, lo cual también será constitutivo de infracción conforme a la legislación sectorial de aplicación (legislación urbanística y medio ambiental), pudiendo imponerse las sanciones señaladas en la citada legislación.

Aurrekoaren kalterik gabe, beharturik dagoenak desegiten ez badu instalazioa, exekuzio subsidiarioko prozedura eskatu ahal izango du Udalak, jardueraren titularren kontura eta subsidiarioki afektatutako ondasunaren jabearen kontura.

Sin perjuicio de lo anterior, en caso de que el obligado a ello no proceda al desmantelamiento de la instalación, el Ayuntamiento podrá instar un procedimiento de ejecución subsidiaria, con cargo al titular de la actividad y subsidiariamente con cargo al propietario del bien afectado.

#### **4. KAPITULUA. ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO UDAL ZERGA.**

#### **CAPITULO 4. IMPUESTO MUNICIPAL DE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS.**

##### **17. Art. ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO UDAL ZERGA.**

##### **Art. 17. IMPUESTO MUNICIPAL DE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS.**

Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergaren ondorioetarako, eguzki energia kaptatzeko sistemen instalazioen exekuzio materialaren zenbatekoak kontzeptu hauek sartuko ditu: Obra zibila eta jarritako elementu guztien kostua guztira (plakak, metagailuak, transformadoreak eta abar), erosketa eta instalazio kostua barne.

A efectos del Impuesto de Construcciones, Instalaciones y Obras, el importe de la ejecución material de las instalaciones de los sistemas de captación de energía solar incluirá los siguientes conceptos: la obra civil y el coste total de todos los elementos instalados (placas, acumuladores, transformadores, etc.), incluidos el coste de adquisición y el de instalación.

Ordenantza Fiskalaren bidez erregulatuko dira, hala badagokio, Ordenantza honetan aipatzen diren sistemen instalazioa egiteko egon daitezkeen dirulaguntza bideak, hau da, EIOZren kuota ordaintzeko salbuespenak, osorik edo zati batean. Hala badagokio, Udalak eman ditzakeen laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde edo administrazio batzuek ematen dituzten beste laguntza batzuekin.

Mediante Ordenanza Fiscal se regularán, en su caso, posibles líneas de subvención a la instalación de los sistemas objeto de la presente Ordenanza, a través de exenciones totales o parciales del pago de la cuota del ICIO. En su caso, las ayudas que pueda prestar el Ayuntamiento serán compatibles con otras que sean concedidas por otros Entes o Administraciones.